

# Dokumentua



## Euskadi, aurrerapen eta askatasun bidetik

### 1.- SARRERA

1.1.- VII Kongresu konfederalak, ELAren presentzia eta eragina euskal gizartean indartu eta nabarmenago uzteko gure borondatea azpimarratu zuen. Borondate hori praktikan jartzeak hainbat konpromezu dakartzkio ELAri:

- \* Euskadiko autogobernuaren defentsan eta garapenaren alde burukatzeko konpromezua.
- \* Lan-munduak gehiengoa osatzen duen errealitatearekin ados datorren gizarte-dimentsioa nazio-erakuntzaren proiektuari erantsi eta sindikalismo abertzalea ezartzearen alde lan egiteko konpromezua.
- \* Lan eta bizitz baldintzetan eragina izan dezaketen instantzia guztietan langileen abotsa eta borondatea balioeragiteko konpromezua.

1.2.- Gure VII Kongresua ospatu genuenetik hona igaro diren bi urteetan garrantzi handiko gertaerak jazo dira hala Europako eremuan nola euskal esparruan. Denboraldi honetan, geure barne errealitate bera ere ez da mantendu egonkor. Batzorde Nazionalak, bada, uste izan du gure papera definitzen duten helburuei eta, euskal sindikatu garenez, gure zentzuari buruzko gogoetan sakontzeko une egokia dela. Gogoeta hau eranstean zaion dokumentua, ELA osatzen duten erakunde-multzolari zuzenduta dago batez ere, euretan ere bakoitzari dagokion gogoeta eta debatea sustatzeko asmoaz.

## 2.- MUGIMENDU ABERTZALEAREN HELBURU KOMUNAK

**2.1.-** Abertzale den edonork banaka zein talde moduan bilatzen duen helburua, gure identitate kolektiboa Euskal Herri osoko autogobernu betearen hodeiertzean bizi eta garatzea da.

**2.2.-** Mundu abertzaleko errealtate anizkoiaren aurrean abertzale guztiok, zer hauek onartu behar ditugu: autogobernua lortzeko burrukan formulazio eta estrategia ezberdinak ematea, erritmo ezberdinak aurrikustea, eta prozesua eta azken emaitza bera ere era diferentean bistaratzea.

**2.3.-** Errealtate anizkoi hori, hala ere, ez litzateke izan behar, Euskadiren eraikuntza sendoki oinarritzen dituzten baldintzak garatzean eta (ekonomi, gizarte, kultur,...) helburuak erdiestean nazionalistek elkarrekin lan egiteko gai izan gaitezen oztopo.

Baina, zoritxarrez, azken urteetako esperientzia erakusten ari zaigu elkarrekin egin beharreko lan honek behin eta berriz egitenduela topo zailtasun gutti justifikagarriekin.

**2.4.-** Gure ustez, bada, gogoeta bat ireki beharra dago mugimendu abertzalea osatzen duten taldeen egoera eta jokabideei buruz. Erakunde abertzaleek, EEAn behintzat duten hautesmaila altua eta gizarte- ezarerra garrantzitsua antzu bihurtzen dira sarri elkarren neutralizazio sistemati-koaren ondorioz.

Eraginkortasun-maila urriek, akordio finkoak erdieste-ko gaitasunik ezak, fruitu gabeko testimonialismoen maiztasunak, gai bakoitzaren aurreko posizioa politika-ikuspegi orokorren ezberdintasunaren isladatzat hartzeko praktikak, euskal bizitza politiko eta sozialean narriadura serio bat sortzen dute, aurkakotasunen orokorpen eta absolutizaziora eta adarretako ezta- baidetan indarrak galtzera eramaten dute, militanteria abertzaleko kideei alde eragin eta gaitz-erasten diete eta abertzale-sailetako politika motibapena eta hezkuntza bortizki narriatzen.

**2.5.-** Bestalde, gure artean nazio askapenerako bide moduan burruka armatua praktikatzan duen erakun- de bat dago. Askapenaren helburu hori erdiesteko gaitasuna seriozki inork gaurregun defendatu ezin duen burruka armatu horren iraunkortasunak, eragin guztiz negatiboa du Euskadiko bizitza politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean.

**2.6.-** Burruka armatuak gatazkaren absolutizazio- logika propioa ezartzera darama eta ondorioz, etsaitzat hartzen du eta aurreko luebakian jartzen bere planteiamenduekin ados ez dagoen guztia, bidezkotzat joz edozein bitarteko eta erabide.

Guzti honen ondorenak, honako hauek dira: apurke- ta sakon bat dagoela mundu abertzalearen beraren baitan, eta bizitzaren eta pertsonen errespetuan, tole- rantzian, zintzotasunean, elkarrizketan eta lankideta- sunean oinarritu beharreko elkarbizitzaren narriadura.

**2.7.-** Bestalde, burruka armatuak abangoardia ttiki batengan jartzen du erabaki politikoaren eremua, mugimenduko gainontzeko guztia estrategia horren muga-gabeko euskarriaren papera betetzera bazter- tuz. Era honetan, hainbat energia eta giza baliabide garrantzitsu, aitzindaritzat militarretik markatutako dinamika betetzeko erabiltzen dira.

**2.8.-** Esan daiteke, bada, burruka armatuaren iraun- kortasunak era oso negatiboan eragiten duela nazio- burrukaren osotasunean. Gaurregun askoren artean

dago, egon, kontzientzia bat uste duena ahal denik eta azkarren gaingitu beharreko egoera bizi dugula, amaiera berehala ipini beharrekoa.

**2.9.-** Testuinguru honetan, euskal erakunde politikoak eurak ere, mugimendu abertzaleko sektore batek hauen legitimotasuna bera ere eztabaidan jartzen du-, gizarte-parteharmena gehituta baino konpentsa- tu ezin den desgaste-prozesu bati lotuta daude.

Hala ere, Erakunde hauek euren erabaki eta erabide- etan gizarte- errealtateetik -definizioz zerbitzatu beharreko errealtate horretatik- noizbehinka larregi deslotzen direlako inpresioa dago eta bitarteko era- kundeak kontutan ez hartzeko joera dutela.

Jarrera honen adierazgarri bat, gaurregungo gizar- tean sindikatuak jokatu beharreko paperari buruz politiko batzuren diskurtsoan irristatzen diren deskali- fikazioak dira, politikook gainera sustraipen demo- kratiko eta herritar guttiko botere faktikoen, -nagusiki ekonomikoen-, aurrean ofiziosotasun atseginkorra adierazi ohi dutelarik.

Gizarte-erakundeekiko, eta nabarmenki sindikatu- eko, urruntze arriskutsu hori, parteharmena ugaltze- rekin eta gure erakundeen aldeetiko legitimotasun demokratikoa gehitzeko etengabeko arduraren bidez zuzendu beharra dago.

**2.10-** Ekintza politikoaren helburu eta lehentasunak finkatzeko orduan ELAK, euskal hiritarrek garregun jasaten dituzten arazo ekonomiko eta sozialak jotzen ditu preminazkoentzat.

Enpleguaren etengabeko suntsidurak, belaunaldi berriek lan munduan sartzeko dituzten eragozpenak, lanbide eta bizi perspektibarik eza, gure ingurugiro hurbilenaren zati handi batek jasaten duen narriadu- ra, txirotasun eta baztertze hazkorrak, e.a., guztion saiamen eta esfortzurik handiena eskatzen duten ara- zoak dira.

Gure gaurregungo nazio-errealtateak bizi dituen arazo kilikatzaileak abordatzeko politika abertzaleak dituen zirtizarta, seriotasun eta efikaziak baldintzatu- ko dute euskal gizartearen gehiengoa osakide sentit- zen deneko herri-mota eraikitzeke proiektuaren bide- ragarritasuna.

## 3.- NAZIO KONTZIENTZIEN BIZKUNDEA

**3.1.-** Subiranotasunaren adierazpen politikoaren beren herrietarako errebindikatu eta kasu askotan eskuratu duten mugimendu nazionalista sendoen bizkundera, Europako zenbait estatutan eman dena, euskal nazio- nalistentzat pozkario eta itxaropen zio da eta sarri askotan abagadune historiko soilen fruitu den mugen "status quo" hori, berezko zerbait, iraunkorra eta mugiezina dela uste duten haientzat ere, gogoeta-ele- mentu izan beharko luke.

**3.2.-** Nazio kontzientzia eta borondateak kontrako egoeratan irauteak, ideologia, sistema eta blokeen gainetik bizirik geldituz, aginkeriazko erregimenetan biziraunik eta erregimen demokratikoetan iraupena mantenduta, mende azkeneko Europa honetan dog- ma interesatu batzu behera botatzen dituen lehen mailako datu bezala agertzen da. Zeren herri zanpa- tuek sarri jasan behar izan bait dugu, ez bakarrik Estatutuko aparailuaren kontrolatik datorren gaine- zartze politikoa baizik eta baita nazionalismo domi- nantzaileen interesak eta aurreritziak estaliz balizko aurrerabide-egoeretatik sustatutako deslegitimazio etikoa ere.

**3.3.-** Herri bateko garelako sentimendua, bere identi- tate- ezaugarriekiko atxekimendua, ezaugarriok

mantendu eta garatzeko borondatea eta nazio-elkar-  
te garenez etorkizuna lantzekoa, askori bizipen guz-  
tiz sakon eta sustraitu bezala agertu zaizkio, banako  
askatasunaren sentimenduari modu askaezinean lotu-  
ta. Eta banako askatasuna horrenbeste defendatzen  
dutenek eta duela guttira arte diktadura komunisten  
menpean egondako herrietan askatasun-mota hori  
lortzeari horren balio handia ematen diotenek ezingo  
dute erraz defendatu ez dela zaindu eta sustatu beha-  
rreko balioa beren etorkizuna herri bezala erabakit-  
zeko askatasunaren erabilpen kolektiboa.

**3.4.-** Hona hemen, Europako erdialde eta ekialdeko  
herrietan azken urteetan bizitako prozesuen ondorio  
eta egiaztapen batzu:

**3.4.1.-** Ez du justifikazio juridiko ez politikorik auto-  
determinazio-eskubidea 60ko hamarkadako deskolo-  
niakuntza-prozesuetan sartuta dauden Europatik kanpo-  
ko nazioetara mugatzeak, gure inguruko  
herrietako estaturik gabeko nazioak baztertuz.

**3.4.2.-** Estatuarteko mugak ez dira mugaketa aldae-  
zinak, ez era absolutu eta behinbetirako kontsagra-  
tuak. Europa jabetuz dõa -eta gehiago orain batasun-  
aren orduan- mugako zedarririk konbentzionalik  
asko eta hautagarririk ez gutti dutela eta inoiz, Euskal  
Herriko kasuan bezala, kultur eta gizarte identitate  
bat bortxaz zatitu dutela.

**3.4.3.-** Europako estatu-egitura anitznazionaletan  
politika- sistema erdiratu eta izaera uniformistakoak  
errakuntza nabarmena izan dira.

**3.4.4.-** Nazio-errealitatearen adierazpen politikoa  
eragozteko bidetzat indarrera jotzeak eta estatuaren  
batasun eta osotasunaren azken berme-papera  
armadari emateak - Espainiako Konstituzioan, adibi-  
dez, egiten dena-, galdu dute legitimotasuna eta topo  
egiten dute oinarritzko printzipio demokratikoekin.

**3.4.5.-** Estaturik gabeko nazioen arazoak konponbi-  
de egokia aurkitu behar du, baldintza arrazonaga-  
rrietan eskatzen duen edozein talde nazional autode-  
terminazio- eskubidearen egitaritza ahalbidetuko  
dioten mekanismo demokratiko erabilgarri eta balioz-  
koen bidez.

**3.4.6.-** Europako esparruan eta, gehiago oraindik,  
elkartekoan autodeterminazio-eskubidearen egikari-  
zara iristeko bide bezala burruka armatua erabiltzea,  
politikoki okerra eta bideraezina agertzen da.

**3.5.-** Bestalde, batasun politikoa prespektiban -  
hedatze- prozesuan dagoena gainera- bere subira-  
notasuna egituratu duten elementuak, hala nola  
moneta, defentsa edo kanpo harremanak, estatuz-  
gairadiko instantziei transferitzen ari dira, mugen bir-  
tualtasuna, bitartean, zirriborratzen doalarik.

**3.6.-** Hala ere, kokoloegia izatea litzateke pentsatzea  
elkarteko politika-batasuna indartzeak, besterik gabe,  
errealitate nazionalen aitzatespen-maila handiagoa  
ekarriko duela. Gerta daiteke, gainera, ebatz-tegiak  
urrunagoko eremuetara transferitzeak mugimendu  
nazionalisten presio-ahalmena ahul dezakela.

**3.7.-** Guzti honengatik, bada, derrigorra dugu gure  
planteiamenduak egoera berrira egokitzea eta esta-  
tuzgairadiko, estatu eta nazio esparruetan artikulazio  
politikoa birgogartze teoriko eta praktikora jotzea.  
Kontzeptzio estatalista, erdirakoi eta uniformista  
zaharkituek desagertzeari oraindik jarkiera jartzen  
dioten eszenategi berriari, Europako herriek geure  
kontinenteari honako hau emateko parada errebindi-  
katzen dugu: bera osatzen duten herrien errealitatea  
ezagutzen ez duen artikulazioa, alegia.

lido honetan, errealitate nazional infraestatalek duten  
subjektu politikoa izaera aintzatetsiko lukeen sub-  
sidiarioritasun- printzipioaren aplikazio zabal batek  
lagun lezake eszenategi berriari errealitate hauen  
adierazpen politikoi bidea ematen.

#### **4.- LAN-HARREMANETAKO MARKO PROPIOA**

**4.1.-** Europako herriek bizi duten abagadune berri  
honetan ELA, sindikatu-konfederakunde abertzalea  
denez eta Euskadiko langileek baitetsitako gehiengo  
ordezkaritzak ematen dion legitimotasunean babestu-  
ta, gure herriko autogobernu osoa lortzeko burrukan  
dagokion erantzunkizun-kuota bere gain hartzeko  
borondatean birbaieztan da.

**4.2.-** Autogobernurako prozesu honetan eta bere  
edukinak itxuratu eta zuzkitzean, ELAk lehenengo  
mailan jartzen du Euskadi eraldatzean gizarte bidez-  
ko eta lagunkideagoan, aske eta demokratikoagoan,  
integratu, kohesionatu eta partehartzaileagoan.

Perspektiba honexetatik begiratuta hartzen du zent-  
zua lan harremanetako marko propioa, helburu  
estrategiko bezala formulatzeak, baina ez bakarrik  
estatal sindikalismoaren baitan, langileak eta mugimendu  
sindikala nazio-erakuntzako proiektuan sart-  
zea nahi duen edozein formulazio abertzalaren bai-  
tan baino.

**4.3.-** Bestalde, mundu sindikalak zerikusia du gure  
errealitatean etengabe presente dagoen nazio-gataz-  
karekin eta erakunde sindikal bakoitzak hartzen duen  
honi buruzko koka-esparru eta jokaera mota, funtsez-  
ko identifikazio- elementu bihurtzen da, batez ere  
ematez badoaz beste ezaugarri ideologiko eta parti-  
dista batzu.

#### **5.- ESTATU-SINDIKALISMOAREN JARRERA**

**5.1.-** Argi dago, beraz, sindikatu bat honako egoera  
batetan eremu bateko edo besteko -estatu edo nazio-  
ko- erakunde bezala egituratzeak, adierazten dituen  
ideologi inplikazioez gain, objektiboki ari dela hautatu  
duen eremua indartzen.

**5.2.-** Adierazgarria da lan harremanetako marko  
propioaren erreinbindikazioa nola jo den estatu-  
esparruko sindikalismotik, CEOE ugazaberiatik beza-  
la, onartezintzat eta estatuko lan- markoaren batasun  
ukaezinaren kontrako. Ideia hau, guztiz gogoan izan  
zuten lan-harremanen Espainiako sistema egituratu  
zenez eta strategi helburuetariko bat bezala agert-  
zen ari da berriro buruzagi sindikal entzutetsu batzu-  
ren ahoan behintzat, UGT eta CCOOen arteko  
ekintza - batasunaren berrindartze - prozesuaz ari-  
tzerakoan.

**5.3.-** Ez dago inolako dudarik, estrategia hau prakti-  
kara eraman ahalgintzen den neurrian, UGT eta  
CCOOekin EAEn dugu gaurregungo ekintza-bata-  
suna guztiz kolokan jarriko litzatekeela; nahiz eta  
espero daitekeen guztioi interesatzen zaizkigun hel-  
buru aurrelarietarantz aitzintzeko euskal markoak  
eskaintzen dituen ahalbideen balioespen positiboa  
egitez nagusituko zaiola erdirapen-estrategiari.

#### **6.- LAN HARREMANETAKO MARKO PROPIOAREN EGITURAKETA**

**6.1.-** Euskadirako lan harremanetako marko propio  
baten alde burrukatzeko gure asmoa birbaieztan  
zuen Ebazpena onartu genuen gure VII Kongresuan  
eta bertan azaldu genituen marko hau mugatzen  
zuten zio eta bereizgarriak

**6.2.-** Gernikako autonomi estatutuak autogobernu-  
ahalbideak arras mugatzen dituen eskuduntza-hutsu-

nea du lan-eremuan hain zuzen, EAeri ez diolako aintzatesten arau-eskuduntzarik alor honetan.

Errealitate honen aurrean euskal sindikalismoa jo eta ke ari da etengabe eskatzen euskal erakundeei aintzatesteko lan eta gizarte politika propioa burutzen erraztuko dioten eskuduntzak. Esan beharra dago CEOEko kide den CONFEBASK ugazaberiarren laguntza, eskabide honetan, beste ezer baino gehiago urria dela.

Gaurregun esan daiteke diskurtso hau indar politikoa abertzale guztiek sartu dutela beren diskurtsoaren baitan eta baita jokaera-programatan eurretan ere, EAJ-EA-EEren gobernu-itunean adibidez. Esan daiteke, bada, INEM edo Gizarte Segurantzaren transferentziaren erreibindikazioa, edo lan-arloko arau-eskuduntzen delegazioarena, mugimendu abertzalearen ondare komunaren zati direla jadanik.

**6.3.-** Indar abertzaleen erreibindikazio honek, jadaneko arau- markoaren baitan erraz eman daitekeen gauza bestalde, topo egiten du, hala ere, botere zentralaren jarrera itxiarekin, ez bakarrik arau-eskuduntzarik egon ere ez dagoen alor batetan euskal eskuduntza-sabaia jasotzeari ezetz esaten diolako, baizik eta eremu sozio-laboralean jokatzeko ahalbideak guttienera murriztera zuzenduriko Estatutuaren interpretazioa eta aplikazio-erizpideak mantentzen dituelako.

**6.4.-** Azkenengo hamarkadan botere horren nagusigoa izan duen alderdia, PSOE, alor honexetan agertu da bereziki beligerante, bai bere organo zentrala bera eta bai Euskadiko bere ordezkariak ere.

PSOEek, gainera, honako diskurtso ideologiko hau gehitu dio bere jarrera indartsuari, hots: zuzentasun eta aurrerabide printzipioak errespetatuko dituen lan eta gizarte politika bermatzeko gai, botere zentrala baino ez dela.

**6.5.-** Beligerantzia hau nabaritu da, eta ez zitekeen beste era batera izan, PSOE Gazteizko Gobernuan sartu denean.

Eta baldin lan harremanen gaia, lehenengo koalizio-gobernuan desakordio-gai bezala katalogatu bazen eta ondorioz apartaturik geratu, oraingoan oraindik okerragoa da egoera Lan eta Gizarte- Segurantza Sailaren zuzendaritza PSOERI eman zaiolako, horren bultzada eta sustapen ekintzaren mende dagoen arren neurri handi batetan lan harremanetako marko propioan aurrera egitea.

Erabaki honen lehenengo ondorenak ikusten ari gara jadanik.

**6.6.-** Dena dela, badirudi egiazta daitekeela lan harremanetako marko propioa mugimendu abertzalearen helburu komuntzat hartzeak ez duela esan gura besterik gabe, euskal sindikalismoak ematen dion lehen mailako garrantzi eta balioespina ematen zaionik helburu horri.

Antzematen du abertzale batzuentzat hau bigarren mailako arazoa dela, garrantzi erlatiboa duena eta inola ere ez, jakina, gatazka-gai izateko adinakoa.

Gure ustez hau, nola ez, errakuntza ikaragarria da.

**6.7.-** Eta amaitzeko, lan harremanen gure sistema, autonomia kolektiboaren egikaritzan oinarrituta, aberas dezaketen proiektuak burutzeko orduan, ugaza-

beria eragile eta eraginkorrik, EAEan bederen, ez izateak duen zailtasuna ez dezakegu alde batera utz.

## 7.- AURRERANTZA BEGIRA

Honarte egindako gogoetatik zenbait helburu eta joka-ildo ondorioztatzen dira gure nazio-etorkizunaren erainkuntzarako garrantzi erabakiorra dutenak eta aurrean izan beharko genituenak, bai gure erakunde honek baita indar abertzaleen multzo osoak ere.

**7.1.-** Ahalegin serio bat egin beharra dago gure identitate kolektiboaren bizikera ezberdinak aberastu eta sakontzeko eta euskal gizarte- sektore desberdinak gure herri honentzat etorkizun bat eraikitzeko lan amankomunera hurbil daitezen.

**7.2.-** Gainditu beharra dago sakabanatze-kultura, desberdintzapena eta aurkaketa ere dinamika gailen gisa, identitate anizkoitik abiatuz eta horri ukorik egin gabe, erreferentzia komunak eta helburu nazional konpartituak, baita dialektikoki konpartituak ere, argiro isladatuko dituen kultura birreraiki dezagun.

**7.3.-** Asko saiatu beharra dago gizartea klabe abertzalean eraberritze-lanean, horrekiko desmobilizapenera eta marko desfaboragarri batetan egokitzera jotzen duten joeren aurrean.

**7.4.-** Sinesgarritasunez eta eraginkortasunez garatuz joan behar du gizartearen eta instituzioen hezurramitzeak, gizarte- talde desberdinen interesa eta ikuspuntua egokiro bil eta islada dadin.

**7.5.-** Eraginkortasuna ekonomi garapenean eta ongizatearen orokorpenean, horra aldi berean eta era integratuan bilatu beharreko xedeak. Geldierazi beharra dago, bada, jasaten ari garen ekonomi gainbehera eta joera hori alderantz, eta enpleguaren eta gizarte-aurrerabidearen helburua lehen mailan jarriko duen politika batetan inplikatu beharra aldiberean.

**7.6.-** Euskal Herriaren lurralde-integrazioaren arazo zail eta konplexua indar nazionalistek betiere aurrean ukan behar duten helburua behar du izan, ahal diren pausu guztiak emanez joan behar dutelarik integrazio hura errazago eta hurbilago dadin.

**7.7.-** Lan harremanetako marko propio baten jarraitkako burutzapenak estrategi mailako garrantzia du ELArentzat. Eta ez bakarrik gure autogobernatu bat garatzeko borondatearekin koherentziak, baizik eta demokrazia, integrazio eta gizarte- hezurramitzerako ahalbide handiagoak eskaintzen dituelako uste osoz.

**7.8.-** Gure proiektu sindikala aberastu eta indartu egin behar dugu, basearen eta afiliatuen enkoardamendu aktiboa areagotuz, kopurua gehitu, prestakuntza hobetu eta militanteen entrega bultzatu eta baseko erakundeak garatuz, bai bere ildo orokorretan nahiz sektorez sektoreko aplikazioetan zehatz-mehatz diseinaturiko politika sindikal baten zerbitzutan guzti hori.

**7.9.-** ELAk jarrera irekia mantendu behar du sindikalismo abertzalearen barriuan hurbilpen handiago bat bultzatuz ekintzen aurrean. Prozesu honetan, edozein kasutan ere, aurrerapausuen posibilitatea - abadagune oso puntual eta konkretuak salbu- subira-notasunaren eta demokrazia sindikalaren printzipioen onarpenera baldintzaturik dago.